

# SUEDIA ETA FINLANDIA ARTEAN

## Aland uharteak, autonomo eta estrategiko Baltikoan

 **GEOPOLITIKA** / Urtzi Urrutikoetxea

Itsaso Baltikoan, Suedia eta Finlandia artean, bada estatus berezia daukan eta azken hilotako giro nahasian protagonismo txiki bat hartu duen artxipelago bat: Aland uharteak. Finlandiako Estatuaren baitan dira irlak, baina suediera da bertako hizkuntza ofizial bakarra. Duela ehun urte lortutako autonomia egoeraren ondorio da.

**D**uela 100 urte Nazioen Ligaren bultzadaz sortutako autonomia egoeraren ondorio da Aland uharteek bizi duten errealitate bitxia. Aurretik, mendeurrena ospatzeaz gain, autonomiaren baitan azpimarratzen den beste elementua –suedieraren nagusitasunarekin batera– gogora ekarri dute: Aland uharte desmilitarizatuak dira. Finlandia eta Suedia NATOk kide bihurtu diren honetan, desmilitarizazio horren garrantzia inoiz baino handiagoa da.

Stockholmetik datorren ferrya uharte harritsu txikien artean igarotzen da, tarteka izeiren bat nabarmentzen dela, Mariehamn Alandeko hiri-buruko portura iritsi aurretik. Mugikorrean erlojuak ordubete egin du aurrera, Finlandiako ordutegiarekin bat etortzeko, eta euroa da bertako diru ofiziala, Suedian koroa erabiltzen duten artean. Hortik kanpo, ontzitik jaitzita, nabarrena da asko dutela berezirik uharteak: teknikoki Finlandian daude, bai, baina ez da finlandierazko seinalerik ageri, dena dago suedieraz idatzita, horixe baita Alandeko hizkuntza ofizial bakarra. Uharteak autonomoak direla eta desmilitarizatuta daudela esaten du Mariehamn hiribu-

ruko seinaleak, eta berehala ohartzen gara urte berezia dela hau, 1922-2022 dioten afixak eta ikurrak nongura baitaude, Alanden autonomiaren mendeurrena ospatzeko.

### DESMILITARIZAZIOA

Debekatuta dago inolako tropa militarrik egotea uharteotan. Zehazki, «desmilitarizatua eta neutralizatua» da nazioarteko agiriekin jaso zutena, eta garrantzitsua da ñabardura:

Milaka irlaz osatutako artxipelagoa da Aland. 30.000 biztanle ditu eta 12.000 hiriburuan bizi dira. ALAND-EKO TURISMO BULEGOA

azken puntu hori 1921eko urrian erantsi zuten, eta estatu guztiak behartzen ditu artxipelagoan inolako fortifikaziorik ez eraikitzea, irlak ez daitezen sartu inolako gatazka armatutan eta, ondorioz, ez daitezen estatu batentzat ere mehatxu izan.

Viveka Löndahl Alandeko Historia Museoko arduradunak uharteotako egoera berezia laburbildu digu: mendetan Suediako erresumaren mendean egon ostean, 1809an Errusiako Inperioaren kontrolpean geratu ziren Finlandiaren batera. Garai hartan, uharteak leku estrategiko garrantzitsutzat hartu zituzten, Baltikoaren kontrolerako eta San Petersburgoko hirirentzat. Sobietar Iraultzara arte egon zen Finlandia

Errusiaren mendean; jarraian independentzia lortu zuen herrialdeak, «Alandeko biztanleek Suediarekin bat egiteko aukera ikusi zuten, eta hala izatea eskatu zuten. Baina Finlandiak artxipelago berria berari zegokiola defendatu zuen». Azkenean, I. Mundu Gerraren ostean sortu berri zen Nazioen Ligak ebatzi zuen Finlandiaren subiranotasunaren baitan geratuko zirela Aland uharteak, baina autonomia zabala izango zutela bertako hizkuntza eta kultura babesteko. Ondorioz, «Alanden autonomia ez da Finlandiaren barne auzi bat soilik, nazioarteko akordio bat ere bada». Ziur aski, I. Mundu Gerraren ostean sortua eta II. Mundu Gerrara arte iraun zuen eta NBEn aurrekaria izan zen



Nazioen Ligaren akordioetatik indarrean dagoen bakarretakoa da.

Mende bat joan da, eta Åland irlek badute Interneteko «.ax» luzapena, matrikula eredu propioa daukate ibilgai-luek, eta euren aulkia ere badute Iparraldeko Herrialdeen Kontseiluan. Danimarka, Suedia, Finlandia eta Islandiaren batera, estaturik gabeko hiru lurralde autonomo daude Kontseiluan: Faroe, Groenlandia eta Åland uharteak. Era berean, burujabetza fiskala du, ez Finlandiaren baitan, baita EBrekiko ere, BEZ zergarik gabeko lurraldea da. Baltikoan dabilzan ontzi eta ferry erraldoiek, esaterako, *tax free* salerosketak egiteko baliatzen dute Åland uharteetako eremua igarotzea.

#### NATOKO KIDE

Finlandia eta Suediaren arteko harremanak duela 100 urte baino askoz hobeak dira gaur egun, eta elkarrekin dihardute hainbat esparrutan. Åland uharteek eta, “Åland konponbideak”, bien arteko zubi hori islatzen dute neurri batean. Helsinkik eta Stockholmek elkarrekin egin dute aurtien NATO n sartzeko eskaera ere, urte luzez aukera hori baztertu osten. Errusiaren erantzunetako bat, hain zuzen ere, Åland uharteetako estatus bereziari buruz izan da. Madrilen uztailean egindako goi bileran, NATOko kide diren estatuek ez zioten oztoporik jarri lurralde desmilitarizatu gisa jarrai dezan, baita Finlandiak elkarte militarrekin bat egiten duenean ere. Ålandeko Gobernuak lehen ministroak ere argi esan du: «Zergatik aldatu beharko genuke? Baltikoan egonkortasun faktore



Åland uharteak autonomoak direla eta desmilitarizatuta daudela esaten duen kartela. Urtzi URRUTIKOETXEA

bat da gu desmilitarizatuta egotea».

Mariehamnen bizi dira milaka irlaz osatutako artxipelago honetako biztanleen herenak baino gehiago: 30 mila alandarretatik 12 milak dute bizilekua hiriburuan. Hiriburuan zein kanpoan, itsasoa beti dago gertu, uharte harritsuak ageri dira, baso berde oparoak, harrizko eliza zaharrak eta egurrezko arkitektura, eta ontzigintzaren garrantzia nabarmentzen da hainbat txokotan. Desmilitarizazio eta neutralizazio horren adibidea Mariehamnetik ordu erdira daukagu errepidez. Kastelholm Erdi Aroko gaztelu dotorea atzean utzita, Bomarsund-

eko gotorleku erraldoiaren hondakinak daude. Errusiarrak eraiki zuten 1830eko hamarkadan, Baltikoko pasabideak kontrolatzeko. 1854an Krimeako gerra piztu zenean, handik gutxira Frantziako eta Britainia Handiko armadek eraso eta gotorlekua txikitu zuten. 1856ko Parisko Hitzarmenean Errusiaren mende jarraitu zuen Finlandiak, Åland uharteak barne, baina, lehen aldiz, artxipelagoa lurralde desmilitarizatu izendatu zuten. I. Mundu Gerra amaitzean berretsi zen desmilitarizazio estatus hori; garai hartan Sobietar Batasunak ez zeukan oraindik nazioarteko aitormen handirik –gerra zibila ze-

goen piztuta– eta ez zegoen Nazioen Ligan. Handik hogeit urtera, baina, Stalin Finlandia konkistatzen saiatzean piztu zen Neguko Gerraren ondoren, Moskuk eta Helsinkik bake akordioa izenpetu zuten. Ordutik, sobietar (1992tik errusiar) kontsulatu bat dago Mariehamnen, Bakearen Institutuaren ondo-ondoan. Moskuk otsailean Ukraina inbaditu zuenetik, egunero-egunero egiten dituzte elkarretaratzeak arratsaldeko bostetan Mariehamneko egoitza diplomatikoaren aurrean.

Finlandia ofizialki estatu elebiduna da, suediera hiztunak ehuneko 5 baino ez diren arren, herrialdearen mendebaldeko eta hegoaldeko kostaldean batez ere. XX. mendean zehar murriztuz joan da suedieradun biztanleen kopurua Finlandian, eta finlandiarrek ere, eskolan suediera eskolak hartu arren, nahiago dute sarritan ingelesez hitz egin Suediara baldin badoaz... edo Åland uharteetara. Historia eta Kultura Museoko bisitan, argazki erakusketa baten irekierarekin egin dugu topo. Suedieraz izan da aurkezpena nagusiki, eta argazkilariak, finlandiarra izanik, ingelesez egin du. «Åland uharteetan gehienek ez dakite finlandieraz, edo oso gutxi dakite», diosku Löhndalek, «Suediako telebista ikusi ohi dugu, eta suedierazko hedabideak kontsumitzen ditugu. Museoan bertan, panelak hiru hizkuntzatan ditugu, baina batzuek nahiago lukete suedieraz eta ingelesez soilik izatea». Desmilitarizazioaz gain, motibo praktiko bat ere ba omen dago Ålandeko mutilak Finlandiako derrigorrezko soldadutzatik salbuetsita egoteko: ezin parte



hartu hizkuntzarik ulertzen ez duten armada batean, finlandieraz baitira aginduak Finlandiako armadan.

Museoaren parean dagoen parkean hiriari izena ematen dion Maria Alexandrovnaren eskultura dago, errusierazko eta suedierazko hitzekin. Mariehamn 1861ean fundatu zuten, artxipelagoa Errusiaren mende zegoela, eta Alexander tsarraren emaztearen omenez jaso zuen izena.

Parkearen aurrez aurre, udazkeneko eguzki freskoarekin dabilta paseoa herritarrek oinezkoen gunean. Aldamenean, Aland uharteetako Parlamentua dago. Bertan baino ez dugu ikusi Finlandiako

bandera, Suediakoa ere aldamenean duela. Eta Aland uharteetako, noski, aurreko biak bezala gurutze nordikorekin, baina kolore hori, urdin eta gorriz.

Zortzi alderditako 30 diputatu daude Parlamentuan, horietako batek, Ålands Framtid edo Alanden Etorkizunak, egungo *statu quo*a aldatzea proposatzen du, ez Suediarekin bat egiteko, herrialde independentea eratze-ko baizik. Aulki bakarra daukate Legebiltzarrean. Gaur egun gaia ez dago agenda politikoan, baina denek argi dute demokraziarako ona dela planteamendu guztiak egotea mahai gainean.

Festa giroa Mariehamn hiriburuan.

ALAND-EKO TURISMO BULEGOA

**Mende bat joan da, eta Aland irlek badute interneteko «.ax» luzapena, matrikula-eredu propioa daukate ibilgailuaek, eta euren aulkia ere badute Iparraldeko herrialdeen kontseiluan**

**Finlandia eta Suedia NATOk kide bihurtu diren honetan, alandarrek garbi daukate: «Zergatik aldatu? Baltikoan egonkortasun-faktore bat da gu desmilitarizatuta egotea»**





Urtzi URRUTIKOETXEA

## PETRA GRANHOLM

### ALAND UHARTEETAKO BAKEAREN INSTITUTUKO IKERKETA KOORDINATZAILEA

# «Itxaropenaren uharteak izan nahiko genuke»

Aland uharteetako Bakearen Institutuak 30 urte bete berri ditu. Bertako ikerketa koordinatzailea da Petra Granholm.

#### Zer lan egiten du Bakearen Institutuak?

80ko hamarkadako herri mugimendutik dator, behetik gorako ekimen gisa; lan akademikoa, hezkuntza eta aktibismoa zituen helburu. Gaur egun erakunde akademikoa gara nagusiki, argitalpen ugari ditugu Aland uharteetako ereduaren bidez ezagutza bultzatzeko. Hiru osagai dituen ideia da: autonomia, desmilitarizazioa edo neutralizazioa, eta gutxiengoaren babesa. Duela 100 urte piztutako arazoak dira: batetik, nola partekatu boterea; segurtasuna, bestetik, Itsaso Baltikoaren inguruan, eta babesa gutxiengoaren kultura eta hizkuntzari dagozkie, euskaldunek erraz uler dezakezen gisan. Beste lurralde autonomia eta gatazka egoera batzuei begiratzen diegu, batzuetan inspirazio izan gaitezkeelakoan, eta beste batzuetan haiengandik geuk ikasteko.

#### Hemen suediera ez doa atzera, Finlandiako beste leku batzuen gisan.

Aland uharteetako suediar nortasuna oso desberdina da Finlandiako suediar gutxiengoaren aldean. Nire lana, esate baterako, Finlandiako legearen arabera koordinatzen da; ni ez banago, finlandieraz soilik egingo lukete, baina ni egonez gero, suedieraz egiten saiatzen dira. Haien suediera maila kaskartzen joan da belaunaldiz belaunaldi; nik ere xume jokutzen dut, nire finlandiera ez baita oso ona. Eta ez dira horiek herrialdeko hizkuntza bakarrak, hor daude samiak ere iparraldean. Dibertsitatea ospatu beharko litzateke.

#### NATOn sartzeak aldaketarik dakar desmilitarizazioan?

Labur erantzunda, ez. Gure politikariek hala berretsi dute, atzerri ministroak, lehen ministroak zein NATOk beste kideek.

Gogoratu NATOk beste kide batek ere baduela gune desmilitarizatu bat: Norvegiak Svalbard uharteetan. Beraz, hemen ere ez litzateke ezer aldatu beharko. Bruselan NATOren bileran egindako azalpenean argi utzi zen estatusa ez zela aldatuko. Desmilitarizazioak esan nahi du uharteetan ez dela armadarik izango eta ez dela fortifikaziorik eraikiko. Praktikan, alandarrek 'bakearen uharte' deitzen diogu; akatsak dauden bakoitzean nabarmendu dituzte 80ko hamarkadatik. Esaterako, entrenamendu militar baterako itsasontziz garraiatzen bazituzten militarrek gure uharteetatik igarota, protestak izaten ziren, desmilitarizazio estatusaren urraketa bat delako.

#### Ukrainako inbasioak iritzi publikoa aldatu zuen Finlandian eta Suedian, NATOn sartzearen aurka egotetik ados egotera. Alanden ere bai?

Ez dakit inkesta ofizialik ba ote dagoen, sentipen orokorra da jendea pozik eta ados dagoela; niretzat ezustekoa eta desengainu puntu bat izan da. Arrain handi bat irentsi dugu, pixka bat etsita nago ez delako eztabaida demokratiko gehiagorik izan erabaki hau hartu aurretik. Hemengo iritzi orokorra (NATOr buruz) beti izan da, 'ez, orain ez', eta bat-batean dena aldatu da. Nire ustez beldurrean oinarritutako erabakia izan da, eta bestalde, hori ere sentimendu humanoa eta naturala da.

#### Aipatu duzu badagoela Errusiako kontsulatua.

Bai, parean daukat; udazkeneko giroa dago, fresko, orbelak erortzen, zuhaitzak gorritzen, Ukrainako bandera bat dago kanean, dena dago oso baketsu. Protestak egiten dira arratsaldeetan, beti izan dugu bake mugimendu indartsua hemen, baina ez dago aparteko besterik. Esan izan zen Turku hiriko (Finlandia) kontsulatua itxiko ote zuten, eta

ea hemen ere ondoriorik izango zuen. Gakoa da hemen aldebiko akordioa dagoela eta nire iritzian ez litzateke inteligentea izango ezer aldatzen hastea. Besteak beste, Vienako Konbentzioak daudelako tartean nazioarteko agiriak aldatzeko.

#### Estatus berezia duzue EBn ere.

Suediak eta Finlandiak EBrekin bat egin zutenean, 1995ean, ez zegoen argi Aland uharteak ere sartuko ote ziren, posible zen Danimarkaren mendeko Faroe uharteak eta Groenlandia bezala kanpoan geratzea. Bi erreferendum egin ziren, eta azkenean, zalantzazko baietza izan zen, baldintza batzuen baitan, gutxiengoaren babesa bermatuz, baita etxebizitza araua ere. Teknikoki bazterketaren aurkako EBren arauetatik kanpo dago Alandeko etxebizitza eskubidea, baina baldintza bat da hauteskundeetara aurkezteko edo bozkatzeko, baita negozio bat edo lursail bat izateko ere. Jaiotzaz daukazu hemen jaio bazara, eta kanpoan sortu eta bertara etorri bazara, baldintza batzuk daude: bost urtez bertan bizi izana, finlandiar herritartasuna izatea eta suedieraz dakizula frogatzea. Finlandieraren eraginaren aurrean hartutako babesa da; inor ez dadin kanpotik etorri eta uharteak erosi. Neurri konplexua da.

#### 100 urteren ostean, ezer aldatzekorik?

Aland ez da kopiatu eta itsasteko eredu bat, guk nabarmendu nahi dugu badugula 100 urtez funtzionatu duen konponbide baketsu bat, sormena erabilita krisiak konpontzeko. Aland bakearen uharteak dira, baina itxaropenaren uharte izatea ere nahiko nuke. Egun batean Ukrainako gerra amaituko da, eta hor konponbideak aurkitu beharko dira, baita gutxiengoentzat ere.